



Gazteen Argazkiak 2017 Retratos de Juventud  
Octubre 2018ko urria

## Aurkibidea / Índice

<b>1 – Emaitza orokorrak / Conclusiones generales.....</b>	<b>1</b>
<b>2 – Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación.....</b>	<b>6</b>
2.1 – Egoera pertsonala / Situación personal .....	6
2.1.1 – Bizitzarekiko poztasuna / Satisfacción con la vida.....	6
2.1.2 – Norberaren arazo nagusiak / Principales problemas personales .....	7
2.1.3 – Egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioa / Valoración de la situación económica personal.....	9
2.1.4 – Hilabete amaierara iristeko arazoak / Problemas para llegar a fin de mes .....	10
2.2. Euskadiko eta Spainiako egoera / Situación de Euskadi y de España .....	11
2.2.1 – Euskadiko arazo nagusiak / Principales problemas de Euskadi.....	11
2.2.2 – Gaur egungo eta etorkizuneko egoera / Situación actual y en el futuro .....	13
2.2.3 – Euskadiko eta Spainiako egoera politikoaren balorazioa / Valoración de la situación política de Euskadi y de España .....	14
2.2.4 – Euskadiko, Spainiako eta Europako egoera ekonomikoaren balorazioa / Valoración de la situación económica de Euskadi, España y Europa.....	15
2.2.5 – Ekonomiaren bilakaerari buruz espero dena / Expectativas de evolución de la economía.....	16
<b>3 – Eusko Jaurlaritza berria eta legegintzaldiko ardatzak / Nuevo Gobierno Vasco y ejes de la legislatura .....</b>	<b>17</b>
3.1 – Eusko Jaurlartzarekiko konfianza / Confianza en el Gobierno Vasco.....	17
3.2 – Eusko Jaurlitzaren ezagutza herriaren beharrei buruz / Conocimiento del Gobierno Vasco sobre las necesidades de la ciudadanía .....	17
3.3 – Eusko Jaurlitzaren lehentasunak / Prioridades del Gobierno Vasco .....	18
3.4 – Arlo bakoitzari eman beharko litzaizkiokeen baliabideak / Recursos que se debería asignar a cada ámbito .....	20
3.5 – Instituzioek gehien babestu beharko lituzketen kolektiboak / Colectivos que las instituciones deberían proteger más.....	22
<b>4 – Jarrera eta balio politikoak / Actitudes y valores políticos.....</b>	<b>24</b>
4.1 – Politikarekiko interesa / Interés por la política.....	24
4.2 – Sinpatia politikoak / Simpatías políticas .....	25
4.3 – Euskadiko buruzagi politikoen ezagutza, aprobazion eta balorazioa / Conocimiento, aprobación y valoración de líderes políticos de Euskadi .....	27
4.4 – Ezker-eskuin eskala / Escala izquierda-derecha .....	29
4.5 – Euskal nazionalismo edo abertzalesun eskala / Escala nacionalismo vasco .....	30
4.6 – Euskal herritar-españiar ardatza / Eje vasco-español.....	31
4.7 – Kataluniako prozesu independentistak sortzen dituen sentimenduak / Sentimientos que produce el proceso independentista catalán .....	32

4.8 – Autogobernua / autogobierno .....	33
4.8.1 – Nahi den autogobernu maila / Nivel de autogobierno deseado .....	33
4.8.2 – Eusko Jaurlaritzaren jardueraren balorazioa autogobernuari dagokionez / Valoración de la actuación del Gobierno Vasco con respecto al autogobierno .....	34
4.8.3 – Autonomía Estatutuarekiko poztasuna / Satisfacción con el Estatuto de Autonomía ....	36
4.8.4 – Erabakitzeko eskubidearen subjektua / Sujeto del derecho a decidir .....	37
4.8.5 – Independentziarekiko jarrera / Actitud hacia la independencia .....	38
4.8.6 – Botoa balizko erreferendum batean / Voto en un hipotético referéndum .....	39
4.9 – Memoria eta Bizikidetza / Memoria y Convivencia.....	40
4.9.1 – Ideia politiko desberdinetako herritarren arteko elkarbizitzaren balorazioa / Valoración de la convivencia entre personas de ideas políticas diferentes .....	40
4.9.2 – Kultura desberdinetako herritarren arteko elkarbizitzaren balorazioa / Valoración de la convivencia entre personas de distintas culturas .....	40
4.9.3 – Immigranteen ekarpenea Euskadiri / Aportación de las personas inmigrantes a Euskadi.....	41
4.9.4 – Errefuxiatuei laguntzea / Ayuda a personas refugiadas .....	41
4.9.5 – Demokraziaren funtzionamenduarekiko poztasuna / Satisfacción con el funcionamiento de la democracia .....	42
4.9.6 – Giza Eskubideen betetze mailarekiko poztasuna / Satisfacción con el cumplimiento de los Derechos Humanos .....	43
4.9.7 – Memoria eta bizikidetzaren inguruko zenbait gairi buruzko iritzia / Opiniones sobre diversos temas en torno a la memoria y la convivencia.....	44
<b>5 – Pertsona nagusiak / Personas mayores .....</b>	<b>46</b>
5.1 – Zahartzaroari buruzko hautematea gizartean / Percepción social de la vejez.....	46
5.1.1 – Biziako garairik zoriontsuena / Etapa más feliz de la vida .....	46
5.1.2 – Pertsona nagusiek gizartean betetzen duten lekua / Lugar que ocupan las personas mayores en la sociedad .....	47
5.1.3 – Gizartearen portaera pertsona nagusiekin / Comportamiento de la sociedad con las personas mayores .....	48
5.1.4 – Norbait edadetua dela esateko arrazoia / Razón por la que se puede decir que alguien es mayor .....	49
5.1.5 – Pertsona nagusiei buruzko iritziak / Opiniones sobre las personas mayores .....	50
5.2 – Pertsona nagusiekin familia harremanak / Relaciones familiares con personas mayores .....	51
5.2.1 – Harremana pertsona nagusiekin / Relación con personas mayores .....	51
5.2.2 – Harremanaren maiztasuna / Frecuencia de la relación .....	52
5.3 – Erretiroa / Jubilación .....	54
5.3.1 – Pentsio publikoen etorkizunari buruzko kezka / Preocupación sobre el futuro de las pensiones públicas .....	54
5.3.2 – Pentsioekiko etorkizuneko aukerak / Opciones futuras para las pensiones.....	55

5.4 – <b>Zaintzak / Cuidados</b> .....	56
5.4.1 – <b>Dependentzia duten pertsona nagusien zaintza antolatzeko aukerak /</b> Opciones para organizar el cuidado de personas mayores dependientes .....	56
5.4.2 – <b>Nagusiak direlako dependentzia duten senitartekoak dituztenak /</b> Personas con familiares dependientes por edad avanzada .....	57
5.4.3 – <b>Dependentzia duen senitartekoaren zaintzaren antolaketa /</b> Organización del cuidado del familiar dependiente .....	58
5.4.4 – <b>Dependentzia duen pertsonaren zaintzaren kalitatearekiko poztasuna /</b> Satisfacción con la calidad del cuidado de la persona mayor dependiente .....	59
5.5 – <b>Erakundeak / Instituciones</b> .....	60
5.5.1 – <b>Nork arduratu behar du dependentzia duten pertsona nagusiez /</b> Quién debe hacerse cargo de las personas dependientes .....	60
5.5.2 – <b>Administrazioaren laguntzak hirugarren adinerako /</b> Ayudas de la Administración a la tercera edad .....	61
<b>6 – Zientziaren eta teknologiaren gizarte pertzepzioa /</b> <b>Percepción social de la ciencia y la tecnología.....</b>	<b>62</b>
6.1 – <b>Zientzia eta teknologiarekiko interes maila /</b> Nivel de interés por la ciencia y la tecnología.....	62
6.2 – <b>Zientzia eta teknologiarekiko informazio maila /</b> Nivel de información sobre ciencia y tecnología .....	65
6.3 – <b>Ikerlari lanbidearen irudia /</b> Imagen de la profesión de investigador/a.....	68
6.4 – <b>Zientzia eta teknologiaren onura eta kalteak /</b> Beneficios y perjuicios de la ciencia y la tecnología .....	69
6.5 – <b>Zientziaren gizarte irudia /</b> Imagen social de la ciencia.....	70
6.6 – <b>Hezkuntza zientifikoa /</b> Educación científica .....	72
6.7 – <b>Oinarrizko ezagutza zientifikoa /</b> Conocimientos científicos básicos .....	73
<b>7 – Zehaztasun teknikoak / Ficha técnica .....</b>	<b>75</b>
<b>8 – Elkarritzetutako biztanleriaren ezaugarriak /</b> <b>Características de la población entrevistada.....</b>	<b>76</b>
<b>9 – Eranskina: Emaitzak kolektiboka / Anexo: Resultados por colectivos .....</b>	<b>78</b>

## 1– Emaitza orokorrak / Conclusiones generales

### SARRERA

“Gazteen Argazkiak” bildumaren hogeita batgarren alea 2017ko Euskal Soziometroetan, 63, 64 eta 65 zenbakiak dituztenetan, jasotako datuetatik osatzen da.

Bildumaren helburua da gazteek hainbat gai sozopolitikori buruz dituzten iritzi eta jarrerak aztertzea eta 30 urte edo gehiago dituztenen iritziekin alderatzea, baita adierazle nagusietan izandako bilakaera azaleratzea ere.

### EGOERAREN BALORAZIOA

Gazteen kezka pertsonal nagusiak lan merkatuarekin, arazo ekonomikoekin, hezkuntzarekin eta etxebizitzarekin lotutakoak dira. 30 urte edo hortik gorakoek baino gehiago aipatu dituzte beren kezka gisa, salbu eta bi adin taldeek berdin aipatu dituzten arazo ekonomikoekin kasuan. Lan merkatuaren inguruko arazoaren aipamena (%53) krisiaren hasierako portzentajeetara itzuli da.

Hamar gaztetik ia bedaratzia oso edo nahikoapozik daude daramaten bizitzarekin, 29 urtetik gorakoek baino pozago eta baita aurreko neurketetan baino.

Euren egoera ekonomiko pertsonalari dagokionez, gazteen %67k ona edo oso ona dela diote, txarra edo oso txarra dela dioten gazteen herenaren (%31) aurre. Portzentaje bera da hilabete bukaerara iristeko arazoak dituena eta 2013tik 6 puntu jaitsi da.

Gazteek hobeto ikusten dute Euskadiko egoera orokorra Espainiako baino (hurrenez hurren 6,4 eta 4,7 puntu, 0tik 10erako eskalan). Bi kasuetan hemendik urtebetetra egoera hobeak izango dela uste dute eta nagusien adin taldekoak baino optimistagoak dira. Balorazio hau 2013tik urtez urte hobetuz doa.

Zehazki egoera politikoari dagokionez, alde handia dago Euskadiri eta Espainiari buruzko iritzietan, Euskadiak gazteen %54k ona edo oso ona dela dioten bitartean, Estatukoari buruz %12k bakarrik dute iritzi hori eta, gainera, urtez urte aldea handituz doa.

Bateko eta besteko egoera ekonomikoaren balorazioa ere oso desberdina da. Euskadiak ona edo oso ona da gazteen %69ren iritziz eta iritzi hori bera %20k dute Espainiari buruz. Euskadi egoera ona edo oso ona dela dioten portzentajeak, 2013an behea jo ondoren, goraka jarraitzen du. Hemendik urtebetetra egoera ekonomikoa hobeak izango dela Euskadin diote gazteen %41ek eta Estatuan %23k. Gazteak 29 urtetik gorakoek baino optimistagoak dira egungo egoera ekonomikoari zein etorkizun hurbilekoari dagokienez.

Euskadiko arazo nagusien artean gazteek gehien aipatutakoak lan merkatuari lotutako arazoak dira (%64), azken urteetan duen lehen tokiarri eutsiz; haatik, 29 urtez gorakoek baino gutxiagok aipatu dute (%75). Gazteen hamarretik batek baino gehiagok aipatu dituzte arazo ekonomikoak (%16), politikarekin lotutakoak eta hezkuntza (%12, bi kasuetan).

### INTRODUCCIÓN

La vigésimo primera entrega de la serie “Retratos de Juventud” se ha creado a partir de los datos recogidos en los Sociómetros Vascos del año 2017, los números 63, 64 y 65.

Este trabajo tiene como objetivo analizar la opinión y las actitudes de la juventud vasca sobre un amplio abanico de temas socio-políticos y compararlos con las opiniones de las personas de 30 años o más, así como observar la evolución producida en los principales indicadores.

### VALORACIÓN DE LA SITUACIÓN

Las principales preocupaciones personales de la juventud están relacionadas con el mercado laboral, los problemas económicos, la educación y, la vivienda y los desahucios. Preocupaciones que han sido mencionadas en mayor medida que por las personas de 30 años o más, salvo los problemas económicos que son mencionados en igual medida por los dos colectivos. El porcentaje referido a los problemas del mercado de trabajo (53%) ha vuelto a cifras similares a las del inicio de la crisis.

Casi nueve de cada diez jóvenes están muy o bastante satisfechos con la vida que llevan, ligeramente más satisfechos que las y los mayores de 29 y que en las mediciones anteriores.

En cuanto a su situación económica personal, el 67% de la juventud dice que es buena o muy buena, frente a un tercio (31%) que considera que es mala o muy mala. Ese mismo es el porcentaje de quienes tienen problemas para llegar a final de mes y ha descendido 6 puntos desde el 2013.

Las personas jóvenes ven mejor la situación en general de Euskadi que la de España (6,4 y 4,7 puntos, respectivamente, en una escala de 0 a 10). En ambos casos, creen que la situación será mejor dentro de un año y son más optimistas que el colectivo de personas mayores. Esta valoración ha mejorado años tras año desde el 2013.

En concreto en cuanto a la situación política, hay una gran diferencia en las opiniones sobre la situación vasca y la española. Un 54% de la juventud cree que la situación de Euskadi es buena o muy buena, mientras esa opinión solo la expresa un 12% con respecto a la situación española y, además, la diferencia se está incrementando año tras año.

La valoración de la situación económica de una y otra también es muy diferente. Un 69% de las y los jóvenes creen que la situación en Euskadi es buena o muy buena y esa misma opinión la expresan sobre España un 20%. El porcentaje de quienes dicen que la situación de Euskadi es buena o muy buena sigue en ascenso tras tocar fondo en 2013. Por otro lado, un 41% de la juventud cree que la situación económica en Euskadi será mejor dentro de un año y un 23% que lo será en el Estado. La juventud es más optimista que las personas mayores de 29 años tanto respecto a la situación económica actual como respecto a la del futuro cercano.

Los problemas más mencionados entre los principales problemas de Euskadi son de nuevo los problemas ligados al mercado laboral (64%), manteniendo la primera posición; sin embargo, son mencionados en mayor medida por las personas que tienen más de 29 años (75%). Los problemas económicos (16%), los relacionados con la situación política y la educación (12% en ambos casos), son mencionados por más de uno de cada diez.

## EUSKO JAURLARITZA BERRIA

Gazteek 5,1 puntuatua kokatu dute Eusko Jaurlaritza berriak eragiten dien konfianza maila, Otitik 10erako eskalan, 2013an osatutako aurreko gobernuari eman zioten baino puntuazio altuagoa (4,7).

Gazteen ustez Jaurlaritza berriaren helburu nagusia izan behar luke langabeziaren eta lan-prekariedadaren aurkako borrokak (%64), jarraian leudeke hezkuntza, gizarte babesa, krisi ekonomikoa, etxebizitzeta eta osasungintza arloak.

Zentzu berean, gazteen iritzian baliabide publiko gehien jaso beharko luketen jarduera arloak emplegu (9,1), hezkuntza (8,9), osasungintza (8,8), gizarte zerbitzuak eta laguntzak (8,5), eta etxebizitzeta (8,4) dira.

Administrazioek gehien babestu beharko lituzketen kolektibo moduan aipatu dituzte langabetuak (%33), gazteak (%32, 30 urte edo gehiago dituztenen artean %12), bere kabuz bakarrik bizi diren pertsona nagusiak (%24, helduen artean %41), pertsona nagusi dependenteak bere kargu dituzten familiak (%22, helduen artean %30), elbarrituak bere kargu dituzten familiak (%22, bi taldeetan) eta adin txikiko seme-alabak beren kargu dituzten familiak (%21, %15en aurrez aurre).

## JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Gazteen %70ek diote politikaz interes gutxi edo batere ez dutela eta %29k interes handia edo nahikoa dutela.

Alderdi politiko bakar batek ere ez ditu 5 puntu lortu Otitik 10erako eskalan. EH Bildu (4,5) da gazteek hobekien baloratu duten alderdia, ondoren Elkarrekin Podemos (4,3), orain artean zuen lehen tokia galduz, eta EAJ (4,2) datozi. Hurrenkera bestelakoa da 30 urte edo gehiago dituztenen artean (EAJk 4,8 puntu; EH Bilduk eta Podemosek 3,3).

Halaber, buruzagi politiko bakar batek ere ez ditu 5 puntu lortu gazteen artean (Urkullu Lehendakariak lortu ditu 29 urtez gorakoen artean). Gazteek 30 urte edo gehiago dituztenek baino gutxiago ezagutzen dituzte buruzagi politikoak eta, oro har, helduek baino balorazio baxuagoa ematen diete, salbu eta Arnaldo Otegi eta Nagua Albari.

Gazteek 29 urtetik gorakoek baino ezkertiarragotzat (3,8 puntu, Otitik 10erako eskalan; 4,2 punturen aurrez aurre) eta euskal nazionalistagotzat (5,3 puntu, 5,0 punturen aurrez aurre) dute euren burua.

Kataluniako prozesu independentistak gazteei eragiten dizkien sentimenduen artean daude interesa (%36i) eta ilusioa (%23); aldiz, 29 urtetik gorakoek %26ri eta %16ri, hurrenez hurren. Ziurgabetasuna (%29), asperdura (%25), haserrean (%18), beldurra (%16) eta indiferentzia (%16) ere aipatu dituzte gazteek, alabaina 29 urtez gorakoek baino neurri txikiagoan.

Euskadirentzat nahiago luketen autogobernu mailaz, gazteen %32k oraingo autogobernua aipatu dute, %26k erabateko independentzia, beste %26k oraingoa baino autogobernu handiagoa eta soilik %3k egungo baino autogobernu txikiagoa. 29 urtez gorakoen artean gutxiago dira independentzia aipatu dutenak (%15).

Lau gaztetatik hiruk (%74) uste dute autonomia

## NUEVO GOBIERNO VASCO

La juventud sitúa en 5,1 puntos el nivel de confianza que les inspira el nuevo Gobierno Vasco, en una escala de 0 a 10, puntuación superior a la ofrecida al anterior gobierno formado en 2013 (4,7).

En opinión de la juventud el objetivo prioritario del nuevo gobierno debería ser la lucha contra el desempleo y la precariedad laboral (64%), seguido de la educación, la protección social, la crisis económica, la vivienda y la sanidad.

En el mismo sentido, las áreas de actuación que la juventud considera que deben recibir más recursos públicos son el empleo (9,1), la educación (8,9), la sanidad (8,8), los servicios y ayudas sociales (8,5) y, la vivienda (8,4).

La juventud señala como los colectivos a quienes las administraciones deberían proteger más a las y los parados (33%), la juventud (32%, frente a un 12% entre las personas de 30 años o más), las personas mayores que viven solas de forma independiente (24%, frente a 41% entre las y los adultos), las familias con personas mayores dependientes a su cargo (22%, frente a 30%), las familias con personas con discapacidad a su cargo (22%, en ambos colectivos) y las familias con hijos e hijas menores a su cargo (21%, frente a 15%).

## ACTITUDES Y VALORES POLÍTICOS

Un 70% de las y los jóvenes dicen que están poco o nada interesados en la política y un 29% muy o bastante.

Ningún partido político logra 5 puntos en una escala de 0 a 10. El partido mejor valorado por la juventud es EH Bildu (4,5), seguido de Elkarrekin Podemos (4,3) que pierde su primera posición, y el PNV (4,2). La clasificación es diferente entre las personas que tienen 30 años o más (PNV 4,8 puntos; EH Bildu y Podemos 3,3).

Asimismo, ningún líder político logra 5 puntos entre las y los jóvenes (lo logra el Lehendakari Urkullu entre las personas mayores de 29 años). La juventud conoce en menor medida a las y los líderes políticos y, en general, les dan menor puntuación que las personas de 30 años o más, salvo en el caso de Arnaldo Otegi y Nagua Alba.

La juventud se considera a sí misma más de izquierdas que las personas de 29 o más años (3,8 puntos, en una escala de 0 a 10; frente a 4,2 puntos) y más nacionalista (5,3 puntos, frente a 5,0).

Entre los sentimientos que produce el proceso independentista catalán a la juventud están el interés (al 36%) y la ilusión (23%); mientras que los produce al 26% y al 16%, respectivamente, de las personas mayores de 29 años. También han mencionado que les produce incertidumbre (29%), aburrimiento (25%), irritación (18%) e indiferencia (16%), aunque en menor medida que quienes tienen más de 29 años.

Respecto al nivel de autogobierno que desearían para Euskadi, un 23% de las personas jóvenes dicen que el mismo autogobierno que ahora, un 26% la independencia total, otro 26% más autogobierno que ahora y únicamente un 3% menos autogobierno que ahora. Son menos quienes mencionan la independencia entre quienes tienen más de 29 años (15%).

Tres de cada cuatro jóvenes (74%) creen que quien debería decidir sobre el futuro de una comunidad autónoma es la población de esa comunidad concreta; en cambio, en opinión de un 17% debería decidir el conjunto de la ciudadanía de España. Son un 64% y un 23%, respectivamente, quienes opinan lo mismo entre quienes tienen 30 años o más.

Las personas jóvenes son más partidarias de la independencia del País Vasco que los de mayor edad: un 31% estaría de

erkidego baten etorkizunari buruz erabaki behar dutenak bertako herritarak direla; aldiz, %17ren iritziz Espainiako herritar guztiak erabaki behar dute. %64 eta %23 dira, hurrenez hurren, 30 urte edo gehiago dituztenen artean hori bera deritzotenak.

Euskal Herriaren independentziaren aldekoagoak dira gazteak nagusiak baino: %31 alde, %23 kontra eta %31 egoeraren arabera ados edo kontra egongo liratzeke (%21, %36 eta %28, hurrenez hurren, 29 urtez gorakoan artean). Independentziaren aldeko joerak zuen azken urteetako beherakada eten egin da gazteen artean.

Espainiako gobernuarekin akordioa lortu eta independentziari buruzko erreferendum egingo balitz, gazteek 30 urte edo gehiagokoek baino jarrera independentistagoa agertu dute: %41ek independentziaren aldeko bota emango lukete, %25ek independentziaren kontrako, %12k ez lukete bozkatuko eta %21ek ez dute iritzirik; aldiz, nagusien %30ek alde bozkatuko lukete eta %36k kontra.

Gazteek 6,5 puntu eman dizkiote Euskadin ideia politiko desberdinak dituzten pertsonen arteko biziak (0tik 10erako eskalan, non 0ak oso txarra dela eta 10ak oso ona dela esan nahi duten) eta 6,3 kultura desberdinak pertsonen arteko biziak.

Gazteek adostasun altuagoa adierazi dute 29 urtetik gorakoek baino "immigranteek asko ematen diote Euskadiri" esaldiarekin: %76 guztiz edo nahikoa ados, %55aren aurrez aurre. Halaber, gazteen %88 ados dago "Euskadik errefuxiatuei lagundu behar lieke" esaldiarekin ere (nagusien %78 ados dauden bitartean).

Gazteen %58 oso edo nahikoa pozik daude Euskadin demokraziak duen funtzionamenduarekin, Spainian duenarekin poztasuna %31ra jaisten den bitartean. Giza eskubideek Euskadin duten betetze mailarekin ere oso edo nahikoa pozik daude %67 (bilduma hasi zenetik neurri den mailarik altuena da) eta Spainian duenarekin %43.

## **PERTSONA NAGUSIAK**

Hirugarren adinarekiko iritzi nagusia gehienbat positiboa da, ia gazte guztiak oso edo nahikoa ados daude nagusiek ezagutza eta esperientzia ekartzen diotela gizarteari eta lagunza handia direla familia gazteentzat; %28k deritzote pertsona nagusiak tratatzeko zailak direla eta soilik %8k gizartearentzat zama bat direla. Alabaina, gazteen %47ren iritziz ez dute betetzen gizartearen dagokien leku (30 urte edo gehiagokoan artean %56k uste dute hori bera), eta %42k uste dute gizarteak axolagabekeriaz tratatzentzueta.

Lau gaztetatik hiruk harremana dute eurekin bizi ez den 65 urtetik gorako senideren batekin. Senide nagusi horiekin gazteek 29 urte edo gehiago dituztenek baino maiatzasun txikiagoz egin ohi dituzte jarduerak (hala nola, hitz egin telefonoz edo aurrez-aurre, paseatu, zaintza pertsonalean lagundu edota aisialdiko ekintzaren bat elkarrekin egin).

Gazteen %34 asko kezkatzen dira erretiro pentsio publikoak etorkizunean mantentzeko gai izatearekin eta %45 pixka bat.

Pentsio sistemak etorkizunari begira dituen aukerei

acuerdo, un 23% en desacuerdo y un 31% estaría o no de acuerdo, según las circunstancias (21%, 36% y 28%, respectivamente, entre quienes tienen más de 29 años). La tendencia al descenso de los partidarios/as de la independencia durante los últimos años se ha detenido entre la juventud.

Si se lograra un acuerdo con el Gobierno de España y se realizará un referéndum sobre la independencia, la juventud muestra una posición más partidaria de ésta que las personas de 30 años o más. Un 41% de la juventud votaría a favor de la independencia, un 25% en contra, un 12% no votaría y un 21% no opina; en cambio, entre las personas mayores un 30% votaría a favor y un 36% en contra.

La juventud da 6,5 puntos a la convivencia en Euskadi entre personas de distintas ideas políticas (en una escala de 0 a 10, donde 0 indica que es muy mala y 10 que es muy buena) y 6,3 puntos a la convivencia entre personas de distintas culturas.

La juventud muestra un grado de acuerdo mayor que las personas de más de 29 años con la frase "las personas inmigrantes aportan mucho a Euskadi": un 76% muy o bastante de acuerdo, frente a un 55%. Asimismo, un 88% de las personas jóvenes están de acuerdo con la frase "Euskadi debería ayudar a las personas refugiadas" (mientras son un 78% entre las personas mayores de 29 años).

Un 58% de las y los jóvenes se muestran muy o bastante satisfechos con el funcionamiento de la democracia en Euskadi, mientras la satisfacción con respecto al funcionamiento en España desciende al 31%. Un 67% se muestran también muy o satisfechos con el cumplimiento de los derechos humanos en Euskadi (supone el nivel de satisfacción más alto de toda la serie) y un 43% respecto a su cumplimiento en España.

## **PERSONAS MAYORES**

La opinión mayoritaria respecto a la tercera edad es más bien positiva, casi todas las personas jóvenes están muy o bastante de acuerdo en que las personas mayores aportan conocimiento y experiencia a nuestra sociedad y, que son un gran apoyo para las familias jóvenes; son un 28% quienes creen que las personas mayores son difíciles de tratar y únicamente un 8% creen que son una carga para la sociedad. Ahora bien, el 47% de las personas jóvenes piensan que las personas mayores no ocupan el lugar en la sociedad que realmente les corresponde (son un 56% quienes piensan eso mismo entre quienes tienen 30 años o más), y el 42% piensan que la sociedad trata a las personas mayores con indiferencia.

Tres de cada cuatro jóvenes tienen relación con algún familiar mayor de 65 años con quien no convive. Las personas jóvenes realizan actividades conjuntas con esos familiares con menor frecuencia que las personas mayores de 29 años (actividades tales como, hablar por teléfono o personalmente, pasear, ayudar en el cuidado personal o en las tareas domésticas, realizar actividades de ocio).

El mantenimiento de las futuras pensiones de jubilación públicas preocupa mucho al 34% de la juventud y algo al 45%.

Respecto a las opciones futuras para el sistema de pensiones, la juventud menciona varias de ellas en porcentajes similares: pagar más durante la vida laboral para mantener las pensiones como en la actualidad (26%), quitar dinero de otros servicios públicos para pagar las pensiones (24%) e impulsar EPSVs para complementar los de la Seguridad Social (22%). Son pocos quienes han mencionado tener la posibilidad de seguir trabajando tras la edad de jubilación (9%) y la reforma fiscal (1%).

Un 68% de las y los jóvenes creen que la mejor opción para

dagokienez gazteek hainbat aukera aipatu dituzte neurri bertsuan: bizitza laboralean zehar gehiago ordaintzea, pentsioak gaur egungo mailan mantentzeko (%26), dirua beste zerbitzu publiko batzuetatik kentza (%24) eta gizarte segurantzako planak osatzeko BGAEak sustatzea (%22). Gutxik aipatu dituzte erretiro adinaren ondoren lan egiteko aukera (%9) eta zerga erreforma (%1).

Gazteen %68k uste dute dependentzia duten pertsona nagusiak zaintzeko aukerarik egokiena dela hauek euren etxebizitzetan jarraitza senitartekoren batek (%43) edo ordaindutako pertsonek (%25) zainduta eta hurrengo aukera zahar egoitza litzateke (%17).

Lau gaztetatik batek gertuko senideren bat du adinagatik eguneroko bizitzako oinarrizko gauzak egiteko laguntha behar duena. Horietatik, %17 zahar-egoitza batean bizi dira eta %45 beste senitarteko batzuk edota ordaindutako pertsonek zaintzen dituzte, gazteen parte-hartzerik gabe. Haistik, gazteen %1ek eurek soilik zaintzen dituzte eta gazteen %34k horien zaintzan parte-hartzen dute beste pertsona batzuekin batera (senitartekoak edo ordaindutako pertsonak). 30 urte edo gehiago dituztenen artean gazteek baino neurri handigoan parte-hartzen dute adineko senideen zaintzan (%7k soilik eurek zaintzen dituzte eta %48k zuzenean parte-hartzen dute).

Laguntha behar duten adineko senideak dituzten gazteen %87 oso edo nahiko pozik daude haien jasotzen duten zaintza eta arretarekin.

Hamar gaztetatik zazpien ustez dependentzia duten pertsona nagusiak zaintza senitarteko eta ahaideen ardura da bereziki. (%12k diote soilik haien ardura dela eta %59k senitarteko eta ahaideen ardura, administrazioaren laguntzarekin). 30 urte edo gehiago dituztenek administrazioaren laguntha gazteek baino gehiago eskatzen dute.

Eskatzen diren laguntzak, batez ere, dependentzia duten adineko pertsonak euren etxeetan bizitzan jarraitu ahal izateko familientzako babesak dira eta, baita, zahar-egoitza publikoetako toki kopurua edo eguneko egoitzetako eskaizta handitza.

## ZIENTZIAREN ETA TEKNOLOGIAREN GIZARTE PERTZEPZIOA

Gai zientifiko eta teknologikoek gazteen interesen artean maila ertaina dute; hezkuntza interesatzen zaie gehien, jarraian elikadura eta kontsumoa, ingurumena eta ekologia eta zientzia eta teknología datozen (%58ri asko edo dezena interesatzen zaie, 29 urtez gorakoaren %48ren aurrez aurre), zinea, artea eta kultura, kirolak, ekonomia eta enpresak edo politikarekiko interesaren aurretik.

Zientzia eta teknología gaiez gazteek aitortzen duten informazio maila interesaren nahikoaz azpitik dago (%37 daude dezente edo asko informatuta).

Ikerlari lanbidearen zenbait ezaugarriren balorazioa gorabeheratsua da: norberarentzat aberasgarria (%60) eta gazteentzat oso erakargarria (%54) den lanbidea dela uste baina, aldi berean, gizartearen errekonozimendu eskasa duela (%54) eta diruz gaizki ordaindua dagoela (%45).

Gazte eta helduen erdiak deritzote zientzia eta teknologiaren onurak kalteak baino handiagoak direla,

cuidar a las personas mayores dependientes es que sigan viviendo en su propia casa (cuidados/as por algún familiar 43% o por personas remuneradas 25%) y la siguiente opción sería una residencia de ancianos (17%).

Uno de cada cuatro jóvenes tiene un familiar cercano que por su edad avanzada necesita cuidados para realizar las actividades cotidianas. De entre ellos, el 17% viven en una residencia y al 45% los cuidan otros familiares y/o una persona remunerada, sin intervención de las y los jóvenes. En cambio, un 1% los cuidan ellos/as exclusivamente y un 34% de las personas jóvenes participan en el cuidado de sus familiares dependientes junto con otras personas (familiares o personas remuneradas). Las personas de 30 años o más participan en mayor medida en el cuidado de los familiares mayores (un 7% los cuidan ellos exclusivamente y un 48% participan directamente en su cuidado).

El 87% de las y los jóvenes que tienen familiares mayores dependientes están muy o bastante satisfechos/as con la calidad del cuidado y la atención que reciben esas personas.

Siete de cada diez jóvenes creen que la responsabilidad del cuidado de las personas mayores dependientes es de la familia y los allegados especialmente (12% exclusivamente de la familia y 59% de la familia y allegados, con ayuda de la administración). Quienes tienen 30 años o más solicitan la ayuda de la administración en mayor medida que las y los jóvenes.

Las ayudas que se solicitan en mayor medida son apoyos a las familias para que las personas mayores dependientes puedan seguir viviendo en sus casas y, también, aumentar las plazas en las residencias de la tercera edad o aumentar la oferta de los centros de día.

## PERCEPCIÓN SOCIAL DE LA CIENCIA Y LA TECNOLOGÍA

Los temas científicos y tecnológicos alcanzan un nivel intermedio entre los temas de interés para la juventud; la educación es el tema por el que muestran mayor interés, seguido por la alimentación y el consumo, el medio ambiente y la ecología y, la ciencia y la tecnología (58% muy o bastante interesados/as, frente al 48% de las y los mayores de 29 años), por delante del interés por el cine, el arte y la cultura, los deportes, la economía y las empresas o la política.

El nivel de información sobre ciencia y tecnología es bastante inferior al interés mostrado (37% están muy o bastante informados/as).

La valoración de algunos rasgos de la profesión de investigador es ambivalente: creen que es una profesión que compensa personalmente (60%) y que es muy atractiva para la juventud (54%) pero, por otro lado, creen que tiene escaso reconocimiento social (54%) y que está mal remunerada económicamente (45%).

La mitad de las personas jóvenes y de las adultas opinan que los beneficios de la ciencia y la tecnología son mayores que sus perjuicios, un 29% opinan que están equilibrados y un 9% que los perjuicios son mayores que los beneficios.

La formación científica básica que muestra la juventud es mejor que la de las personas que tienen más de 29 años. Aun así, un 31% de la juventud cree que los antibióticos curan infecciones causadas tanto por bacterias como por virus, un 20% que los continentes permanecen en el mismo sitio y un 19% que el sol gira alrededor de la tierra.

%29k uste dute orekatuta daudela eta %9ren iritziz kalteak onurak baino handiagoak dira.

Gazteek adierazten duten oinarrizko ezagutza zientifikoak 29 urte edo gehiago dutenena baino hobeada. Hala ere, gazteen %31k antibiotikoek birus nahiz bakterioek sortutako gaixotasunak sendatzen dituztela uste dute, %20k kontinenteak leku berean mantentzen direla eta %19k eguzkia luraren inguruan biratzen dela.

Zientziaren gizarte irudiari dagokionez, ideia kontrajarriek dute onarprena. Alde batetik, zientziaren autonomiaren, lehentasunaren eta onuren inguruko iritziak onartzen dira, hala nola, *zientzia eta teknologiarekin lotutako interes orokorreko gaiak adituen esku uztea da onena* (3,7 puntu, 1etik 5erako onarpenean), *zientzia eta teknologiak munduko arazo handietako asko konponduko dituzte* (3,2) eta *teknologia berriei ez zaie mugarik jarri behar zientifikoki frogatu arte kalte larriak sortu ahal dizkiela gizakiei edo ingurumenari* (3,1). Bestelako ideiek ere badute antzeko onarpenean maila, hala nola: *lege eta arauak egitean, balioak ezagutza zientifikoak bezain garrantzitsuak dira* (3,5), *ikerketa zientifikoaren zati handi bat ez da fidagarria, finantziazo pribatuaren menpe dagoelako* (3,1), *zientzia eta teknologia gure gizartearentzako arrisku iturri dira* (2,8).

Respecto a la imagen social de la ciencia, tienen aceptación opiniones contrapuestas. Por un lado, se aceptan opiniones relacionadas con la autonomía, la prioridad y los beneficios de la ciencia, tales como, *las decisiones sobre asuntos de interés general relacionados con la ciencia y la tecnología es mejor dejarlas en manos de las y los expertos* (3,7 puntos, en una escala de aceptación de 1 a 5), *la ciencia y la tecnología solucionarán muchos de los grandes problemas mundiales* (3,2) y *no deben imponerse restricciones a las nuevas tecnologías hasta que se demuestre científicamente que pueden causar daños graves a los seres humanos o al medio ambiente* (3,1). Otro tipo de opiniones también tienen un nivel similar de aceptación, así: *en la elaboración de leyes y regulaciones, los valores son tan importantes como los conocimientos científicos* (3,5), *gran parte de la investigación científica no es fiable porque depende de la financiación privada* (3,1) y *la ciencia y la tecnología son una fuente de riesgos para nuestra sociedad* (2,8).

## 2 – Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación



### 2.1 – Egoera pertsonala / Situación personal

#### 2.1.1 – Bizitzarekiko poztasuna / Satisfacción con la vida

ORO HAR, DARAMAZUN BIZITZAREKIN OSO POZIK ZAUDE, NAHIKOA POZIK, EZ OSO POZIK ALA EZ ZAUDE BATERE POZIK? / EN GENERAL, ¿ESTÁ UD. MUY SATISFECHO/A, BASTANTE SATISFECHO/A, POCO SATISFECHO/A O NADA SATISFECHO/A CON LA VIDA QUE LLEVA?

ES64 (2017ko maiatza) / SV64 (mayo 2017)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Oso pozik / Muy satisfecho/a	32	27
Nahikoa pozik / Bastante satisfecho/a	56	56
Ez oso pozik / Poco satisfecho/a	9	14
Ez batere pozik / Nada satisfecho/a	2	3
Ed-Ee / Ns-Nc	1	1
EHuneko bertikalak / Porcentajes verticales	100	100

 Taldekako emaitzak konsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: **79**



## 2.1.2 – Norberaren arazo nagusiak / Principales problemas personales

ZURE EGUNEROKO BIZITZAN ZENTRATUZ, ZEIN HIRU ARAZO EDO KEZKA NAGUSI DITUZU? /  
CENTRÁNDONOS EN SU VIDA DIARIA, ¿QUÉ TRES PROBLEMAS O PREOCUPACIONES PRINCIPALES TIENE UD.?

2017 : ES63 (otsaila) / SV63 (febrero) ES64 (maiatza) / SV64 (mayo) ES65 (urria) / SV65 (octubre)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Lan merkatuari lotutako arazoak / Problemas ligados al mercado de trabajo	53	43
Arazo ekonomikoak / Problemas económicos	17	17
Hezkuntza / Educación	16	5
Etxebizitza eta etxe-gabetzeak / Vivienda y desahucios	11	7
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak / Funcionamiento y cobertura de los servicios públicos, ayudas	5	4
Osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza, osasuna / Sanidad, Osakidetza, Seguridad Social, salud	5	17
Azpiegiturak eta garraioak / Infraestructuras y transportes	4	2
Familia	3	8
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa / Situación política, políticos/as y conflicto político	2	3
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria / Inmigración y problemas relacionados con ella, racismo	2	1
Gazteen arazoak / Problemas de la juventud	2	0
Pentsioak / Pensiones	1	8
Familia eta lana bateratzea / Conciliación de la vida familiar y laboral	1	2
Delinkuentzia eta segurtasun falta / Delincuencia e inseguridad ciudadana	1	2
Ustelkeria eta iruzurra / Corrupción y fraude	1	1
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak / Problemas relacionados con la situación lingüística	1	1
Arazo eta desberdintasun sozialak / Problemas y desigualdades sociales	1	1
Murrizketak / Recortes	1	1
Ingurumena / Medio ambiente	1	1
Balioen krisia, norberekeria, intolerantzia, errespetu falta, kontsumismoa... / Crisis de valores, egoísmo, intolerancia, falta de respeto, consumismo,...	1	0
Beste arazo batzuk / Otros problemas	6	4
Ed-Ee / Ns-Nc	21	23

Inkestatuek espontaneoeki emandako erantzunak ondoren kodifikatu dira /  
Se ha realizado una codificación posterior de las respuestas dadas espontáneamente por las personas encuestadas


Ehuneko batura ez da 100 hiru erantzun eman ahal zirelako /  
Los porcentajes no suman 100 porque se podían dar tres respuestas




Taldeko emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: **80**

## KEZKA PERTSONAL NAGUSIAK / PRINCIPALES PREOCUPACIONES PERSONALES

Grafikoan gazteen % 5ek edo gehiagok aipatutako arazoak bakarrik azaltzen dira / En el gráfico se muestran sólo los problemas mencionados por un 5 % o más de la juventud



## 18-29 urte / 18-29 años



Bilakaera datuak interpretatzean kontuan izan behar da azken ikerketetan aurrekoetan baino gehiago izan direla arazo bakar bat aipatu dutenak, hiru aipatzeko aukera izan arren /


Al interpretar los datos de evolución se debe tener en cuenta que en los últimos estudios han sido más que en otras ocasiones quienes han mencionado un solo problema, a pesar de poder mencionar hasta tres

## 2.1.3 – Egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioa / Valoración de la situación económica personal


OROKORREAN, NOLAKOA DA ZURE EGOERA EKONOMIKO PERTSONALA: OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA? /  
EN GENERAL, ¿CÓMO CALIFICARÍA SU PROPIA SITUACIÓN ECONÓMICA PERSONAL?

ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Oso ona / Muy buena	3	2
Ona / Buena	64	63
Txarra / Mala	26	28
Oso txarra / Muy mala	5	4
Ed-Ee / Ns-Nc	2	2
Ehuneko bertsikalak / Porcentajes verticales	100	100

 Taldekako emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 81



### 18-29 urte / 18-29 años




## 2.1.4 – Hilabete amaierara iristeko arazoak / Problemas para llegar a fin de mes


ZUK BADUZU DIRU ARAZORIK HILABETE BUKAERARA HELTZEKO? / ¿TIENE UD PROBLEMAS PARA LLEGAR A FIN DE MES?

ES65 (2017ko urria) / SV65 (octubre 2017)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Bai / Sí	31	29
Ez / No	66	69
Ed-Ee / Ns-Nc	3	2
EHuneko bertikalak / Porcentajes verticales	100	100

 Taldekako emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: **81**



**18-29 urte / 18-29 años**



## 2.2. Euskadiko eta Espainiako egoera / Situación de Euskadi y de España

### 2.2.1 – Euskadiko arazo nagusiak / Principales problemas de Euskadi

ZURE USTEZ ZEINTZUK DIRA EUSKADIKO HIRU ARAZO NAGUSIAK? /  
EN SU OPINIÓN ¿CUÁLES SON LOS TRES PROBLEMAS MÁS IMPORTANTES DE EUSKADI?

2017 : ES63 (otsaila) / SV63 (febrero) ES64 (maiatza) / SV64 (mayo) ES65 (urria) / SV65 (octubre)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Lan merkatuari lotutako arazoak / Problemas ligados al mercado de trabajo	64	75
Arazo ekonomikoak / Problemas económicos	16	14
Egoera politikoa, politikariak eta gatazka politikoa / Situación política, políticos/as y conflicto político	12	12
Etxebizitza eta etxe-gabetzeak / Vivienda y desahucios	12	10
Hezkuntza / Educación	10	6
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak / Funcionamiento y cobertura de los servicios públicos, ayudas	8	7
Ousatungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza, osasuna / Sanidad, Osakidetza, Seguridad Social, salud	5	8
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria / Inmigración y problemas relacionados con ella, racismo	5	6
Arazo eta desberdintasun sozialak / Problemas y desigualdades sociales	4	4
Ustelkeria eta iruzurra / Corrupción y fraude	3	5
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak / Problemas relacionados con la situación lingüística	3	2
Azpiegiturak eta garraioak / Infraestructuras y transportes	3	2
Murrizketak / Recortes	2	2
Ingurumena / Medio ambiente	2	1
Pentsioak / Pensiones	1	4
Delinkuentzia eta segurtasun falta / Delincuencia e inseguridad ciudadana	1	3
Emakumeen aurkako indarkeria / Violencia contra las mujeres	1	2
Indarkeria, terrorismoa, presoak eta bake prozesua / Violencia, terrorismo, presos/as, proceso de paz	1	2
Gazteen arazoak / Problemas de la juventud	1	1
Balioen krisia, norberekeria, intolerantzia, errespetu falta, kontsumismo... / Crisis de valores, egoísmo, intolerancia, falta de respeto, consumismo,...	1	1
Familia eta lana bateratzea / Conciliación de la vida familiar y laboral	1	1
Drogak / Drogas	1	0
Beste arazo batzuk / Otros problemas	4	3
Ed-Ee / Ns-Nc	15	10

Inkestatuek espontaneoki emandako erantzunak ondoren kodifikatu dira /  
Se ha realizado una codificación posterior de las respuestas dadas espontáneamente por las personas encuestadas



Ehuneko batura ez da 100 hiru erantzun eman ahal zirelako /  
Los porcentajes no suman 100 porque se podían dar tres respuestas



Taldeko emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 82

## EUSKADIKO ARAZO NAGUSIAK / PRINCIPALES PROBLEMAS DE EUSKADI

Grafikoan gazteen % 5ek edo gehiagok aipatutako arazoak bakarrik azaltzen dira / En el gráfico se muestran sólo los problemas mencionados por un 5 % o más de la juventud



Bilakaera datuak interpretatzean kontuan izan behar da azken ikerketetan aurrekoetan baino gehiago izan direla arazo bakar bat aipatu dutenak, hiru aipatzen aukera izan arren /

Al interpretar los datos de evolución se debe tener en cuenta que en los últimos estudios han sido más que en otras ocasiones quienes han mencionado un solo problema, a pesar de poder mencionar hasta tres



## 2.2.2 – Gaur egungo eta etorkizuneko egoera / Situación actual y en el futuro

GAUR EGUN NOLA DOAZ GAUZAK EUSKADIN ZURE USTEZ? ETA HEMENDIK URTEBETERA NOLA JOANGO DIRA?  
 ETA ESPAINIAN GAUZAK NOLA DOAZELA USTE DUZU? ETA HEMENDIK URTEBETERA NOLA JOANGO DIRA?  
 ¿CÓMO CREE QUE MARCHAN LAS COSAS EN EUSKADI? ¿Y CÓMO PIENSA QUE IRÁN DENTRO DE UN AÑO? ¿Y EN ESPAÑA CÓMO CREE QUE MARCHAN AHORA LAS COSAS? ¿Y CÓMO PIENSA QUE IRÁN DENTRO DE UN AÑO?

ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)	GUZTIRA / TOTAL		
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años	
EUSKADIN / EN EUSKADI	ORAIN / ACTUALMENTE	6,4	5,8
	HEMENDIK URTEBETERA / DENTRO DE UN AÑO	6,8	6,0
ESPAINIAN / EN ESPAÑA	ORAIN / ACTUALMENTE	4,7	4,2
	HEMENDIK URTEBETERA / DENTRO DE UN AÑO	4,8	4,3

Batezbestekoak (0=oso gaizki; 10=oso ongi) / Medias (0=muy mal; 10=muy bien)

 Taldekako emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 83




## 2.2.3 – Euskadiko eta Espainiako egoera politikoaren balorazioa / Valoración de la situación política de Euskadi y de España


ZURE USTEZ, NOLAKOA DA EGOERA POLITIKOA EUSKADIN? ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOA? /  
REFIRIÉNDONOS A LA SITUACIÓN POLÍTICA DE EUSKADI, ¿CÓMO LA CALIFICARÍA UD.? Y LA SITUACIÓN  
POLÍTICA DE ESPAÑA?

	2017 : ES64 (maiatza) / SV64 (mayo) ES65 (urria) / SV65 (octubre)	GUZTIRA / TOTAL	
		18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
EUSKADIN / EN EUSKADI	Oso ona / Muy buena	3	3
	Ona / Buena	51	55
	Txarra / Mala	28	26
	Oso txarra / Muy mala	5	5
	Ed-Ee / Ns-Nc	13	11
ESPAINIAN / EN ESPAÑA	Oso ona / Muy buena	0	0
	Ona / Buena	12	11
	Txarra / Mala	38	41
	Oso txarra / Muy mala	39	39
	Ed-Ee / Ns-Nc	10	9
Ehuneko bertikalak / Porcentajes verticales		100	100

 Taldeko emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 83



### 18-29 urte / 18-29 años





## 2.2.4 – Euskadiko, Espainiako eta Europako egoera ekonomikoaren balorazioa / Valoración de la situación económica de Euskadi, España y Europa

ZURE USTEZ, NOLAKOA DA EGOERA EKONOMIKOA EUSKADIN: OSO ONA, ONA, TXARRA EDO OSO TXARRA?  
ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOA? /  
¿CÓMO CALIFICARÍA UD LA SITUACIÓN ECONÓMICA DE EUSKADI: MUY BUENA, BUENA, MALA O MUY MALA?  
¿Y LA SITUACIÓN ECONÓMICA DE ESPAÑA?

	2017 : ES63 (otsaila) / SV63 (febrero) ES64 (maiatz) / SV64 (mayo)	GUZTIRA / TOTAL	
		18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
EUSKADIN / EN EUSKADI	Oso ona / Muy buena	4	2
	Ona / Buena	65	60
	Txarra / Mala	25	33
	Oso txarra / Muy mala	2	3
	Ed-Ee / Ns-Nc	4	2
ESPAINIAN / EN ESPAÑA	Oso ona / Muy buena	1	0
	Ona / Buena	19	14
	Txarra / Mala	54	54
	Oso txarra / Muy mala	22	27
	Ed-Ee / Ns-Nc	4	4
Ehuneko bertikalak / Porcentajes verticales		100	100

 Taldeko emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 84



## 2.2.5 – Ekonomiaren bilakaerari buruz espero dena / Expectativas de evolución de la economía


ETA ZURE USTEZ URTEBETE BARRU EGOERA EKONOMIKOA ORAIN BAINO HOBEA IZANGO DA, BERDIN JARRAITUKO DU ALA ORAIN BAINO OKERRAGOA IZANGO DA EUSKADIN? /

¿CREE QUE LA SITUACIÓN ECONÓMICA DENTRO DE UN AÑO SERÁ MEJOR, IGUAL O PEOR QUE AHORA EN EUSKADI?


ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)	GUZTIRA / TOTAL		
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años	
EUSKADIN / EN EUSKADI	Hobea / Mejor	41	29
	Berdina / Igual	48	55
	Okerragoa / Peor	6	10
	Ed-Ee / Ns-Nc	5	5
ESPAINIAN / EN ESPAÑA	Hobea / Mejor	23	17
	Berdina / Igual	51	54
	Okerragoa / Peor	19	22
	Ed-Ee / Ns-Nc	7	6
Ehuneko bertikalak / Porcentajes verticales	100	100	



Taldeko emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 85



### 18-29 urte / 18-29 años



### 3 – Eusko Jaurlaritza berria eta legegintzaldiko ardatzak / Nuevo Gobierno Vasco y ejes de la legislatura

#### 3.1 – Eusko Jaurlaritzarekiko konfianza / Confianza en el Gobierno Vasco


OTIK 10ERAKO ESKALA ERABILIZ, 0AK EZ DUZULA BATERE KONFIANTZARIK ETA 10AK KONFIANTZA OSOA DUZULA ESAN NAHI DUTELARIK, ZENBATEKO KONFIANTZA DUZU EUSKO JAURLARITZA BERRIAN? /

UTILIZANDO LA ESCALA DE 0 A 10, EN LA QUE EL 0 SIGNIFICA NINGUNA CONFIANZA Y EL 10 TOTAL CONFIANZA, ¿EN QUÉ MEDIDA CONFÍA UD. EN EL NUEVO GOBIERNO VASCO?

ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)



18-29 urte / 18-29 años



Batezbestekoa (0=Batere konfiantzarik ez; 10=Konfianza osoa) / Medias (0=Ninguna confianza; 10=Total confianza)



Taldekako emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 86

#### 3.2 – Eusko Jaurlaritzaren ezagutza herritarren beharrei buruz / Conocimiento del Gobierno Vasco sobre las necesidades de la ciudadanía


USTE DUZU EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL HERRITAREN BEHARRAK EZAGUTZEN DITUENA ASKO, NAHKOA, GUTXI EDO BATERE EZ? /

¿HASTA QUÉ PUNTO CREE UD. QUE EL GOBIERNO VASCO CONOCE CUÁLES SON LAS VERDADERAS NECESIDADES DE LA CIUDADANÍA VASCA: MUCHO, BASTANTE, POCO O NADA?

ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Asko / Mucho	10	16
Nahiko / Bastante	42	42
Gutxi / Poco	32	29
Batere ez / Nada	7	9
Ed-Ee / Ns-Nc	8	4
Ehuneko bertsikalak / Porcentajes verticales	100	100



Taldekako emaitzak kontsultatzeko orrialdea / Página para consultar los resultados por colectivos: 86



### 3.3 – Eusko Jaurlaritzaren lehentasunak / Prioridades del Gobierno Vasco

ESANGO DIDAZU, MESEDEZ, ZURE IRITZIZ ZEINTZUK IZAN BEHARKO LIRATEKEEN EUSKO JAURLARITZA BERRIAREN HELBURU NAGUSIAK? /

DÍGAME, POR FAVOR, ¿CUÁLES, EN SU OPINIÓN, DEBERÍAN SER LOS OBJETIVOS PRIORITARIOS DEL NUEVO GOBIERNO VASCO?

ES63 (2017ko otsaila) / SV63 (febrero 2017)	GUZTIRA / TOTAL	
	18-29 urte / 18-29 años	≥ 30 urte / ≥ 30 años
Langabeziaren eta lan-prekarietatearen aurkako borroka / Lucha contra el desempleo y la precariedad laboral	64	68
Hezkuntza / Educación	19	11
Gizarte babesea (gizarte laguntzak, gizarte ongizatea, pobreza...) / Protección social (ayudas sociales, bienestar social, pobreza...)	18	20
Krisi ekonomikoa / Crisis económica	14	14
Etxebizitza / Vivienda	11	9
Osasungintza / Sanidad	10	16
Estatus politiko berria (independentzia, federalismoa, eskumenak...) / Nuevo estatus político (independencia, federalismo, competencias...)	5	5
